



# Ordenagailu Eramangarrien Mailegurako Araudia

- Zerbitzu hau erabiltzeko, erabiltzaileak jarraian zehazten diren mailegurako baldintzak onartuko ditu.
- Mailegua pertsonala eta besterenezina da. Erabiltzaileak maileguan hartutako ordenagailu eramangarria itzultzeko konpromisoa hartzen du.
- Mailegua, gehienez, **4 ordukoa** izango da. Mailegu berri bat egin ahalko da, baldin eta, itzultzeko orduan, ordenagailu gehiago libre badaude.
- Maileguan dauden ordenagailu guztiak, **Liburutegia itxi baino ordubete lehenago** itzuli beharko dira.
- Ordenagailu eramangarriak **Liburutegiaren barruan baino ezingo dira erabili** (inoiz ez sarrera tornuetatik kanpo), **ikasketarako eta ikerketarako ezarritako guneetan**, eta ikasketa kontuetarako baino ez dira maileguan emango.
- Ordenagailu eramangarriak kargagailuarekin batera emango dira. (Sare elektrikora konektatzea gomendatzen da ordenagailua deskargatuta egon daitekeelako).
- Erabiltzailea izango da ordenagailua babesteko eta behar bezala erabilia izateko arduraduna, mailegu epean. Ezingo ditu ordenagailuaren softwarea eta hardwarea manipulatu, ez eta konfigurazioa aldatu ere. Maileguan hartutako ordenagailu eramangarria osagarri guztiekin itzuliko da, eta maileguan emandako uneko baldintza berean.
- Informazio galerarik gertatzen bada, Liburutegiak ez du horren gaineko ardurarik izango. Kanpo memorian gorde ez diren datuak galdu egingo dira ordenagailua itzaltzerakoan.
- Erabiltzaileak arazorik ikusten badu, zerbitzuko langileari eman beharko dio horren berri.
- **Zerbitzu hau txarto erabiliz gero**, ezingo da gehiago erabili; eta diziplina neurri egokiak hartuko dira, gertatutako kalteak kontuan hartuta:

Arau haustea	Zigorra
Ordenagailua behar baino beranduago itzultzea.	Ezingo da mailegu berririk egin hurrengo 15 egunetan; eta, legea behin baino gehiagotan hausten dutenek ezingo dute 3 hilabetetan mailegurik egin.
Ordenagailua Liburutegiko instalazioetatik kanpora ateratzea.	Ezingo da Liburutegira sartu hiru hilabeteetan; eta, legea behin baino gehiagotan hausten duten erabiltzaileak, urtebetean.
Ordenagailu eramangarriaren softwarean aldaketak egitea.	
Ordenagailua galdu edo hondatzea.	Erabiltzaileak ezaugarri bereko ordenagailuaren edo osagarrien kostua hartuko du bere gain, edo, bestela, eragindako kaltea konpontzeagatikoa. Urtebeteko debekua izango du Liburutegian sartzeko.